



## **GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA**

Anoeta Pasalekua, 14-2gn (Velódromo) 20014 DONOSTIA

Apartado de Correos 1326 - 20080 DONOSTIA

☎ 943 46 05 40 · Fax 943 46 86 32

www.gtxe.eus · gtxe@gtxe.eus

### **2018 ESKOLARTEKO TXIRRINDULARITZAREN ALEBIN ETA INFANTILEN MAILETARAKO LEHIAKETA ARAUDIA**

**1º ARTIKULUA:** Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, 2018. urteko martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean Eskola Kirola burutzeko egutegia antolatu du.

Proba horiek larunbat arratsaldean burutuko dira, eta **zortzi** izango dira alebiren mailako lehiaketak eta **hamahiru** infantilen mailakoak, taldekako erlojupeko eta errepedeko Gipuzkoako txapelketez gain.

**2º ARTIKULUA:** Lehiaketa hori alebiren mailako, 2006an eta 2007an jaiotakoak eta infantilen mailako 2004an eta 2005an jaiotakoak, eskola garaiko neska-mutilentzat izango da.

**3º ARTIKULUA:** Eskolek taldeka parte har dezakete, gutxieneko hiru txirrindulari izatetik abiatu eta toperik izan gabe gehieneko kopuruan. Probintzia hiru eskualdetan banatuta dagoenez, ikastetxe bakoitzak bere eskualdean hartuko du parte.

**4º ARTIKULUA:** Ahal izanez gero partehartzaileek bere ikastetxe/ikastoletako izena daraman elastikoa eta bizikletatik jaitsi arte kenduko ez duten kaskoa eta eskularruak jantzi beharko dituzte.

**5º ARTIKULUA:** Egutegiko proba guztiak trafikorik gabeko zirkuitu lau batean egingo dira, aldaparik gabekoa. Alebin mailako probak ez dira 6 kilometrotik gorakoak izango. Infantilentzako lasterketak 15 kilometro inguruak izango dira.

**6º ARTIKULUA:** Gipuzkoako Txapelketarako, taldekako erlojupeko probetan distantzia luzeenak 4 kilometro inguruak izango dira alebinentzat eta 8 kilometro inguruak infantilentzat. Taldeak, eskolarteko mailan nahiz errendimenduko infantiletan, gehienez 5 txirrindularikoak izango dira eta 3koak gutxienez. Alebinetan zein infantiletan, txirrindularitza eskola bereko kideez osatuta egon beharko dute taldeek, hirugarrenak emango diolarik taldeari azken denbora helmugan.

Zirkuitoak eta eguraldiak baimentzen duten talde misto guztiek parte hartu ahal izango dute txapelketan ahalik eta partaidetza handiena bultzatzeko asmoz. Talde misto hauek, txirrindulari eskola ezberdinetako hurrez osatutakoek, ezin izango dute lehiaketako saririk irabazi ahal izango, nahiz eta azken sailkapenean azalduko diren.

**7º ARTIKULUA:** Aurrerapen maximoa pedalkada bakoitzeko **5,37** metrotakoa izango da, **46 x 18** –ko garapenari dagokiona hain zuzen.

**8º ARTIKULUA:** Edozein partaide edo arduradunek eskatu ahal izango die antolatzaileei arautegia betetzen ez duten bizikletak lehiaketatik kanpo uztea.



## **GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA**

Anoeta Pasalekua, 14-2gn (Velódromo) 20014 DONOSTIA

Apartado de Correos 1326 - 20080 DONOSTIA

☎ 943 46 05 40 · Fax 943 46 86 32

www.gtxe.eus · gtxe@gtxe.eus

**9º ARTIKULUA:** Errepideko probetan debekatuta dago eskuak eskulekutik kentzea. Une oro eskuez eutsiko dio txirrindulariak eskulekuari. Arau hori betetzen ez duena lasterketatik kanpo gera daiteke.

**10º ARTIKULUA:** Txirrindulariek ezingo dute soinean edo bizikletan eraman errepidera erori edo airetik ihes egin dezakeen objekturik (edatekoa, puztutzailea,...). Aldi berean, manillarra sendoki egon beharko du estalita bere ertzetan.

**11º ARTIKULUA:** Probetako sailkapena honako hau izango da:  
Txirrindulari eskoletako arduradun guztien artean ahalik eta txirrindulari gehien iritsiera hartzen saiatuko dira, era hortan sailkapen osatu bat bidali ahal izateko Elkargora. Mutil eta neskek elkarrekin aterako dira lasterketetan eta sexu bakoitzeko lehenengoa kontuan hartuko da.

**12º ARTIKULUA:** Lehiaketara bere kontu parte hartzera azaltzen diren hurrek Foru Aldundiak eskaintzen duen eskolarteko kirolaren fitxa azaldu beharko dute antolatzaileek parte hartzea baimendu dezaten. Mugaz beste aldeko elkarlaguntza markoaren barnean atlantiar-pirinioko departamentuko txirrindulariek parte hartu ahal izango dute gure txapelketan. Horretarako, aldez aurretik haien federazioak GTXE-n baimena eskatu beharko du eta indarrean dugun araudia bete beharko dute.

**13º ARTIKULUA:** Lehiaketara bere kontu parte hartzera azaltzen diren hurrek bere bizilekuari dagokion zonaldeko eskolaren baten ardurapean lehiatu beharko dute.

**14º ARTIKULUA:** Alebin mailako txirrindulariek beraien ikastetxearen izenean hartzen dute parte lasterketetan. Federatzeko garaian, aldiz, (hau da, infantil adinean), beraien zonaldeko edozein txirrindulari eskola aukeratu dezakete, nahiz eta beraien herrian bertan txirrindulari eskola izan. Erabaki hori haurraren esku geratzen da, baina haurrak jakin behar du erabaki hori hartzean txirrindulari eskola horretan jarraitu beharko duela ondorengo kategori guztietan inongo eskola aldaketarik onartuko ez delarik.

**15º ARTIKULUA:** Araudi honetan aurreikusirik ez dagoen edozer Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoko Eskolarteko Kirolaren komisioak erabakiko du.